

Uztarrria

uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria



HORMA, BIZIO ANBIZIO

Kirol eskalada egiteko lokal bat prestatu dute herriko eskalatzailleek

Uztarrria-Udala

Hitzarmena sinatu dute; akordioa osorik barruko orrietan

KMK'00

Aurkeztu dute jada kilometroetako kantua



elkarrizketa

Mailu Segurola: «Dantzak gure kulturako parte die»

Euskal Herriko Herritarren Eskubideen eta Eskubide Politikoaren Aldeko Herri Ekimenak
zure hitza, zure erabakia, zure sinadura

Zure sinadura leku hauetan eman dezakezu:

- Jim Clarck
- Plazako kioskoan
- Etxahun-en kioskoan
- Urtzi
- Zuhatz
- Orkatz

Bai Euskal Herriari



**UDALBILTZARI EUSKAL
NORTASUN AGIRI NAZIONALA
JAILKI DEZALA ESKATZEKO
SINADURA BILKETA**

BAI
EUSKAL HERRIARI *



 **MAPFRE**
ZATOZ ETA AHAZTU ARAZOAK

tel: **15 70 60**

LOIOLABIDE, 11 AZPEITIA

CLUB MAPFRE



«Bertsolariari zor diogu benetako euskal estiloaren sorburua» (Jorge Oteiza)

ale honetan...

4-5-6: Alaitz Olai-zola, Jabier Altuna eta Matadero Ekinatzeken iri-tziak, Salegiren marrazkia...

7: AGZ?! taldeak antolatutako gazte astean gazte gunearen gaia izan zen kalean.

8-9: Udala. Jabier Beobideri jaien inguruko elkarrizketa, eta antzerkiko kartel lehiaketa.

13-14-15:

Erreportaia. Eskalada zaleek rokodromo berri bat prestatu dute euren kasa.



16-21: Hartzubia Hiribideko etxebizitzak, bost urte konponbiderik lortu gabe.

17-18-19-20:

Uztarria- Udala hitzarmena. Hitzarmena eta orainarteko aleak.



22-23: KMK'00 kantua grabatu eta aurkeztu da. Hemendik aurrera kalean da entzungai.

28-29: Sabiñanigoko txirrindu proban azpeitiar ugarik parte hartu du. 57k bukatu zuten proba.



34: Elkarrizketa. Mailu Segurola: «Kanpoko dantzak ikusite, politte die guriek, diferentiek».

AKUILUA

Azpeitiarron burrunba



Fernando Morillo

Idazlea

L agun batek bere kezka azaldu zidan aurreko batean. Tabernetako musikari buruz jardun zuen. Musikaren *bolumenaz*. Herri guztietara hedatu da halako moda burrunbatsua, hori ezin uka. Baina haren ustetan —eta ez ziren gutxi bat zetozenak—, badirudi Azpeitian beste herrietan baino ozenago izaten dugula oraindik. Zergatia? Agian azpeitiarrok besteak baino gorragoak gara eta ondorioz bolumen altuagoa behar dugu musikaz gozatu ahal izateko. Posible da. Egon daiteke beste arrazoirik, ordea. Izan ere, beharbada tabernariak beraiek egiten diguten mesedea da. Agian konturatu dira gure gabeziak bat estal dezaketela horrela eta uste izan dute bolumena goratuz ez dela hainbeste nabarrituko. Agian iruditu zaie, azken batean, Azpeitian ez dugula ezer askorik esateko. Edo esaten dugunak ez duela entzuterik ere merezi. Hala ote?

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA



☎ 81 53 35

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerria;
 Telefonoa: 150358. Faxe: bera
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358
Posta elektronikoa:
 uztarria@topagunea.com
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

amuko zubitik



Txikitan buru arina...



Alaitz Olaizola

Hamabost urte nituenean, dena banekiela uste izango nuen seguruenik. Orain, hamar urte beranduago, dena ez dakidala seguru-seguru egonda, jakiteko, bizitzea baino ez zaigula falta pentsatzen dut.

Hamabost urte genituenean, mundua jateko prest geunden, iraultzarako prest. Mila arrazoi somatzen genituen errelatzera bultzatzen gintuztenak. Borrokarako arrazoiak topatzen genituen non nahi.

Garai hura pixka bat urrunagotik behatuta

orain ezinbestez, bizi beharrekoak zirela uler dezaket, oraingoek bizi beharko dutela onar dezakedan bezala, baina argi daukat ere borrokarako arrazoiak beti eta denok izango ditugun arren, bronkarako sekula ez dagoela nahikoa fundamentu.

Duela egun gutxi, bi lagunekin gazteei buruz solasean aritu nintzen. Gazteak desmotibatuak daude, droga kontsumoak gora egin omen du nabarmen, irakaskuntzaren plan berriek ez dute mesederik egin... konforme. Baina

ezin uler genezakeen nola zen posible antzerki emanaldiak erdi-erditik puskatu behar izatea mukitsu batzuk aktoreei sekulakoak esateaz gain, txikleak jaurtikitzeagatik. Ezin uler genezakeen non dagoen tabernetako komunitan txikizioa egitearen grazia, edota loreontzietako lore guztiak zapuztearen arrazoa.

Borrokarako gogoia dutenekin bat egiteko prest nago, bronkarako gogoia dutenei berriz, argi daukat: «Txikitan buru arina, handitan berdina».

gutunak

Tabernetako bolumena

Kanpoanikastendugunok astebukaerak geratzen zaizkigu lagunekin gustora egoteko, batzuetan ezta hori ere. Lagunen berri jaso eta apur bat deskonektatu nahi izaten dugu, ikasketez ahaztu, baina larunbat gauetan, beheko zein goiko tabernatan ia ezinezkoa egiten da hitz egitea, musikaren bolumen altuegia delako gure herri honetan. Askotan tontoen moduan jarduten dugu lagunari buruarekin baiezka egiten, barre antzeko zerbait ezpainartean, aldamenekoak zer dioen entzuten ez dugula. Nik uste dut tabernariak errespetu gehiago gorde beharko lioketela jendea-ri.

Iñigo Eizaquirre

Ramon Etxezarretaren aukera

Lehengoan, oraintxe dela hilabete-edo, autoan nindoala Euskadi Irratia entzuten, Ramon Etxezarretaren arizen hizketan, astarteroko tertulian. Eta halako batean ezustean harrapatu gintuen entzule guztiok: tertulia utzi egiten zuela esan zuen Etxezarretaren urrestildarrak. Izan ere, azken aldi bertan edo beste komunikabide batean esan dituenagatik presio gogorra ari omen da jasotzen (presoen solidarioak ondoan ditu maiz; Donostian bizi da Etxezarretaren, eta zinegotzia da, PSE-EE alderdikoa).

Ez naiz sartuko jasotzen dituen «presioez» hitz egiten, baizik eta adierazpen askatasunaz eta adieraz-

datua

Gipuzkoan energia planaren aurrerape-
nak 5 zentral eoliko
eraikitzea jasotzen
du. Samiño-Izazpikoa
Azpeitiko lurretan ere
sartuko da.

pena emateko aukeraz. Etxezarretak berak ederki jakingo du garai batean —Eeko zinegotzia zenean Azpeitian— gaur egun baino zailagoa zitzaiola komunikabideen bidez bere iritzia jende askorengana heltzea, EE garai hartan —ustez— alderdi abertzalea zelako. Etxezarretaren bera eta beste poltronero batzuk PSEra pasatu zirenetik, aukera handiagoa dute komunikabideen bitartez beren

iritzia gizarteratzeko. Izan ere, zoritxarrez nagusi ditugu komunikabide Espainia-zaleak (El Diario Vasco, adibidez). Baina Etxezarretak komunikabide Euskal Herria-zaleetan ere tokia izan du (Euskadi Irratian eta Egunkarian); orain, ordea, komunikabideok uztea erabaki du.

Ondo dago alderdi espainolistetako jendeak ere komunikabide abertzaleetan tokia izatea iritzia emateko, baina min ere ematen dit, komunikabide espainolek normalean ez dutelako gauza bera egiten abertzaleekin. Eta kasualitatea, egoera horren kontra ezer ez du egiten gure Etxezarretak. Eta gero aukera berdintasunaz hitz egin...

Iñaki Odriozola

UZTARRIAREN OHARRA: gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektronikoko honetara: uztarrria@topagunea.com

azketako ura



Zarata



Jabier Altuna

Udal honen kezka handi bat kaleak garbi mantentzea dela ezin da ukatu; oso positiboa iruditzen zait kezka printzipioz eta berriz diot, gure narratzasuna garbi agerian lagatzen du udalak kaleen garbitasunei hainbeste medio dedikatu beharrak.

Beste kezka handi bat zarata dela dirudi; hain kezkatuta dago, herriko elkarte batean aparatua ipinarazi du zarata neurtzeko eta neurrian mantentzeko. Noski, hau egin badu norbaitek edo norbaitzuk kexatu direlako da; kexatzeko eta gauzak bere neurrian manten-

tzeko pertsona hauen esku-bidea ere ezin da ukatu; (neurria non jartzen dugun beste kontu bat da; goian aipatu dudan elkarte horretan aparatu horrek demostratu omen du arrazoirik ez zeukatela kejatzen zenak/zirenak; elkarte horretan sortzen zen zarata neurri barruan zegoela alegia).


Baina goazen berriz hari-ra; udala oso kezkatuta dagoela zaratak herritarrengan sortzen duen *molestia-ekin* esan dut; baina, hau horrela bada ezin da ulertu, nik behintzat ezin dut ulertu, nola demontre bidaltzen dituen langileak goizeko 6:30etan pasakalea egitera

makina zaratatsu eta beldurgarri horiekin. Despertadore beharrik ez daukagu, puntual-puntual etortzen da makina eta lasai egon, *sin falta* esnatuko zaitu-eta. Ez al da posible lan hori pixka bat atzertzea?

Nire ustez, makina hauek eta musika taldeek sortzen duten zaratak legeak agindutakoa erraz pasatzen dute; beraz, eskatuko nioke udalari beste batzuetan betearazten saiatzen den legedia berak ere errespetatzeko; eta gutxienez atzeratu dezala pasakalearen ordutegia, batik bat asteburuetan.

otso beltz

Andoni Salegi



gaia emanda

Presoen aldeko martxa

Badakigu zein diren preso baten penak baino gogor betetzen dituzte kondenak dira dispertsatuta urruti daudenak Euskal Herriak ditun semerik onenak.

Martxa nazional bat dator gure artera eskubideen alde datorkigu bera bidean pausoz pauso batetik bestera Euskal presoen alde ibiliko gera.

Jokin Vranga

Kulturaren tentakuluak agerian

Konturatu gara, Mata-dero Ekintzak, bere zehaztasun eskaseko ibilbide mardulean, nolabait kultur-talde gisa ulertua izan dela. Izenhonenpean saltzen zaizkigun iñozokeriak salatzen sarritan saiatu garen arren, begira nola UZTARRIA-tik ere kultur-talde moduan eta herrietako kultur egoerari buruz hitzegitera gogo onez gonbidatu gaituzten. Beraz kultura edo delakoari buruz gogoeta hauek.

Gizarte honek ezertarako balio ez duen etengabeko lana bultzatzeaz gain, *denbora librea*, jolasa, mentura, bidaia eta abar merkantzia huts bihurtu ditu, beren izaera irauli eta programaturiko aspermen, lan eta hildako denbora bilakatzeko. Bazen lehen, kultura guzi horretatik askatuko gintuen indar bezala ulertu zuenik, egun esan beharra dago bera dela egoera hau mantentzearen erantzule zuzenena, bere egitura, produktu eta ohiturekin guzia irentsi eta berdinduaz.

Hitz batean esateko kultura (in)formazio bilakatu da, politika kulturalaren helburu nagusia, banakako arimak informaturik edukitzea delarik, honen komunitate, begirada, jolas, hizkuntz eta benetako dastaketaren erabateko suntsipena badakar ere. Bere instrumenturik nagusienak (in)komunikazio medioak ditugu.

Azken boladetan, agintariak kulturaren sekulako interesa

ageri dutela edonor kontura daiteke. Merkantzia kulturala, goxoki erraz bezain efikaza dela konprobatu dute, gazte eta batibat ikasleei zuzenduta, ezer arraroa gerta ez dadin, gizarteak eskaintzen digun paper pasiboan txintxo mantentzen gaituzten. Etorkizuneko fedean bizi direnez gaztetasuna heldutasunerako bide aurreko eskaloari hutsa da beraiantzat, ongi zaindu beharreko gauza, gazte fantasietan urrunegi iñor joan ez dadin. Portzentaia, adin-joera eta abarrekoetan lotu nahiko dute arrazoiari (arrazoi bakarrari) jarraituz.

Tartean kontu kulturaletan parte hartzeko aukera txiki bat emango zaigu (edo gazte arazoaren inguruko programetan), dirulaguntzatxoren bat-eta, inoiz ez helduen arazoari edo plan urbanistikoei buruz eztabaidatzeko. Hau da, kultura, denok ados gauden kontsentsu neutral moduko zerbaiten gisa aurkezten zaigu, guztiok bat egiten gaituena eta guztiok bat egiteko, guziok ongi definituta behar. Beraz: bazkide konkretuak (kopurua eta perfila), helburu argiak, eremu zehatza, dena ulertzeko moduan, zuzendari, idazkari eta bozeramailea baditugu hobe, eta idatziriko aurre-programa, gaian profesionalak diren batzuk aztertu dezaten, bere biabilidatea neurtzeko eta herriko Etorkizuneko Errealitatean izango duen lekua baloratzeko.

Sarritan, gogoratu ohi gara

(IN)FORMAZIO

kultura (in)formazio bilakatu da, politika kulturalaren helburu nagusia, banakoak informaturik edukitzea delarik

KULTURA

Kultura, denok ados gauden kontsentsu neutral moduko gisa aurkezten zaigu, guztiok bat egiten gaituena.

ASKATASUNA

Kulturaren tentakuluak agerian jartzen saiatu beharko luketelakoan gaude, Etorkizuna eta Itxaropena gaitzetziz.

ume-mukisuak giñenean herrian zehar genituen leku nahasietaz. Guziak zementoak irentsi ditu iada. Garai berriek ordea, garai kulturelek, dena pentsatuta dute eta orain ludo-terka bat egin diete. Hau da herri batentzat aberastasun kulturala, ezta? Noraezean, definitu gabe, besterik gabe hortik dabilena hartu eta ordutegi, helburu zehatz, plan pedagogikoa... hornituaz zerbaier kulturalki zoragarri bilakatu. Ez genuke planteamendu hau inolaz beste maila batzuetara zabaltzearen arduradun izan nahi.

Aspaldiko saiakera da kultura ofizial honen kontraposizio gisa funtzionatuko duten leku eta mugimenduen aldeko apustua. Hauek, eskema igualak ez errepikatzen argi ibili beharko, nahiz eta jakin beti jainkoaren erreinuko lur zingiratsuetan mugitzen garen.

Kulturaren tentakuluak agerian jartzen saiatu beharko luketelakoan gaude, Etorkizuna eta Itxaropena gaitzetziz (hau da, Askatasunera eramango gaituen proiektu bat eratzearena). Subertsioaren alde ludikoa berreskuratu, askatasuna edo delakoa agian ez baita jolas honen efektu bat baino izango (ziur gezurrezko etorkizuna baino hobe dela), ekintza politikoa erabateko paranoia bateratu gisa ulertu gabe, garaietako iñozokeriak bultzatzen duen *infantilismoan* erori gabe, zuhertasuna berreskuratzea garamatzen umorearekin, momentuaren pertzepzio intuitiboan baloratuz, jendeen arteko hartu eman zabal bat bultzatuz, ez bakoitzaren *egietan* oinarrituz, baizik konplizeak egiten gaituzten *iruzur konpartituetan*. Matadero Ekintzak beti saiaturiko da erabat ez izaten. OSASUNV

**Matadero
Ekintzak**

Gazte gunea kalean gazte astean

Ohi bezala gazteen partehartzea nagusitu da

► **Ohi bezala futbito finala Enparantza Nagusian jokatu zen** ► **AGZ?! taldeak gazte gunearen gaia kaleratu nahi izan du gazte astean** ► **Argirik ezak eta beroak eragin izan dute gazte astean**

Idoia Mendizabal

Gazteen partehartzea nabarmena izan da, ohi bezala, aurten ere Azpeitian Gazteok Zer?!-ek antolatutako gazte astean. «Positiboa izan da partehartze aldetik, futbiton ohi bezala jende ugari parte hartu du, gero argia joan izanak bertso saioa bertan behera uztera behartu gintuen, eta gazte egunean izugarritzko beroa egin zuen eta jende asko ez zen animatu futbito finala ikusteko. baina, iluntzean gazte gunea aldarrikatuz egin zen manifestazioan jende ugari parte hartu zuen, baita afarian ere», dio AGZ?!-ko Enekok.

Gazte astean AGZ?! taldearen aldarrikapen nagusia gazte gunea beharra izan da, taldeak berak helburu du, gazteentzako gunea. «Gazte astean gazte gunearen kontua adierazi nahi izan dugu, gaia berriro kalera atera nahi izan dugu», dio Enekok.

Harremanak etenda

AGZ?! taldeak gazte gunea helburu, hainbat modu aztertu izan ditu gunea lortu ahal izateko. Hase batean euren kontura lokal bat alokatu eta gazte gunea jartzeko moduak aztertzen ibili ziren, ordea, ezinezkoa zela eta utzi zuten alokairuaren bidea. Bigarren moduari ekinez, udalarekin harremanetan jarri ziren eta bertan gazte gunearen proposamena aurkeztu zuten. «Proposamena eskatu ziguten udaletik, landu eta batzar irekian onartu ondoren udalean aurkeztu genuen», dio Enekok.

Baina AGZ?! taldearen esanetan udaletik ez dute erantzunik jaso eta beraiek aipatu izan duten



Gazte eguneko manifestazioa.

AGZ?!

hirugarren modu baten aldarrikapenak izan dira nagusi gazte astean. «Orain hiru hilabete aurkeztu genuen udaletxean gazte gunearen proposamena, beraien aldetik oraindik ez digute erantzunik eman eta alde horretatik udalarekin genituen harremanak pixka bat hautsita daude, gelditzen den bide bakarria okupazioarena da». Egun, AGZ?! taldea gazte gunea lortzeko jarri zituzten bideen artetik, azken bide bezala jarri zutena, okupazioarena, aztertzen ari da. ■

**IREDE
ESTETIKA**



- + ESTETIKA OROKORRA
- + TATUAIAK
- + MIKROPIGMENTAZIOA
- + SOLARIUM BONOIA (6.500)
- Azken teknologia:
- + LASER BIDEZ BEHINBETIKO
DEPILAZIOA:
- Ordaintzeko erreztasunak
- + MASAIA: - Linfatikoa
- Antizelulitikoa

ORDUTEGI JARRAIA (9:00-19:30)
Urbitarate 4, behea AZPEITIA
Tel. 943 15 15 09



Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

- Zurezko altzarien polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Matrikula zabalik urte osoan

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

Jabier Beobide

Festa Batzordeko burua

“Festak denentzat izatea nahi dugu”

► Urte sasoi hau auzoetako festen garaia da, eta badirudi azkenengo urteetan auzoetako jaiak indarra galtzen ari direla. Zergatik uste duzu hau gertatzen ari dela?

Bai, egia da auzoetako festak indarra galtzen ari direla, eta horregatik udaletik hauek bultzatu nahian gabiltza, harreman zuzena dugu festen antolatzaileekin eta ahal dugun guztia egiten dugu, laguntza ekonomikoak emanez, azpiegitura aldetik ere bai, eskenatokiak eraikiz eta abar. Baina kontua zera da, auzoetan gero eta jende gutxiago bizi dela, gainera beti jende berbera ibiltzen da festak antolatzen eta jakina honek pixka bat erre egiten du. Herriko gazte jendeak ere beste joera batzuk hartu ditu; esaterako, auzoko jaietara hurbiltzen dira herriko tabernak ixten dituztenean. Baina esan jende aldetik gutxitu diren arren, gero eta auzo gehiagok egiten dituztela festak antolatzeko eskaerak, Enparankaleak, Damasonekoak, Matximenta auzoak-eta, baina bertakoentzat dira gehienbat eta azken finean guk ezin ditugu jendearen joerak aldatu.



UDALA

Udaren hasierakin batera, festak izaten dira nonahi, kaleetan, auzoetan eta herrian bertan. Auzoetako festen nahiz **Saninazio** jaien inguruko gora-beheretaz iharduteko, **Jabier Beobide** udaleko festa batzorde buruarekin izan gara.

Udala

► **Saninazioei gagozkio- la, zer azpimarratuko zen nuke zuk programazioan?**

Santiyo Eguna azpimarratuko nuke nik, baserri- tar egun bezala, Saninazioetako festen barnean dago nahiz eta egunez kanpo izan. Azkenengo urteetan, ekintza batzuk aldatu egin dira, betiere hobetzeko intentzioarekin; adibidez, sagardo lehiaketa lehen azoka plaza barruan egiten zen, orain kanpoan egiten da. Bestelako ekintza batzuk gehitu dira, txekorraren

erreketa, Euskadiko Ganadu Txapelketa, gazteen erakusketa- eta. Arratsaldean ber- riz, desenkaionamen- tua dago zezenplazan. Azpeitian bakarrik egi- ten da hori, eta kanpo- tik ere jende asko etor- tzen da ganadua ikus- tera; horrek ere eguna asko janzten du. Egun biribila da beraz, eta bultzatzeko asmoa du- gu.

► **Aldaketarik izango al da aurtengo Saninazioetan?**

Urtearen hasieratik baino ez nago nago Festa Batzordearen buru bezala, eta den- bora asko ez dut izan, baina aldaketa batzuk egingo dira. Plazan ego- ten diren barrakak gauza asko egiteko mugatu egi- ten gaitu leku faltagatik, horregatik barrakak kent- zea nahi ditut plazatik. Adibidez iaz, gazteen bazkariak, 800 lagun bil- du zituen; honi barrakak eta kioskoa gehitzen ba- diogu, leku gutxi gelditzen da umeentzat, bestela ere ez dago ekintza asko hauentzat, eta horregatik umeentzat jolas gehiago jarri nahi ditut enparantza nagusian. Lehen ospa- tzen zen Umeen Eguna

udaletxeko kontuak



Azpeitia hitz bitan.

*Azpeitia hitzak baino gehiago da, aurki ezazu programaren barnean, udalak bi gida turistiko plazaratu berri ditu: *Azpeitia hitz bitan* eta *Azpeitia Loiolatik*. Lau hizkuntzatan argitaratu dira: euskara, gaztelera, ingelera eta frantsesa. Hemendik kanpo, herria ezagutarazi eta era berean turismoa erakartzeko asmoz,*

Izarraitz mendikatea, Ingurugiro Etxea, monumentuak, trenaren museo, festak eta kultura eskaintzari buruzko informazioa jasotzen da. *Azpeitia Loiolatik* gida bisitarietara eskainiko zaie eta *Azpeitia hitz bitan*, batez ere turismo agentzietan banatuko da.

Azpeitia dantzan.

Uztailaren 1ean eman

zitzea hasiera 2000ko Azpeitia Dantzan-i. Orain arte bezala, Itsasi taldeak hartu du beregan antolaketa; halaber, babeslea udala izan da. Itsasik Euskal Herriko eta atzerriko dantzak gonbidatu nahi izan ditu. Emanaldi guztiak plazan izango dira; eguraldi txarra izango balitz berriz, Frontoi Txikian.

Drogomenpekotasun prebentziorako kanpaina.


Azpeitiko Udaleko Gizartekintza de-

partamentuak drogomenpekotasun prebentziorako kanpaina martxan jarri du. Herriko 14tik 20 urte bitarteko gazteei dei egiten zaie kanpainaren gaia jasoko duen eta urtean zehar prebentzio alorreko aktibitate guztietan oinarri izango den kartel bat egiteko. Era berean, beste hainbat ekintza ere martxan jartzeko asmoa du Gizartekintza Sailak, tabakoaren prebentzio zehatza, alkoholari buruzko lana eta abar.

ere berreskuratzea nahi nuke, datorren urterako agian. Saninazioak oso festa klasikoak dira, eta ez dago aldaketa handirik egiteko aukerarik, agian ez dira Azpeitiko festa herrikoienak, baina badaude beste festa batzuk horretarako. Gainera, festak antolatzeke deialdia egin zen jendearen parte-hartzea bultzatzeko, baina ez genuen erantzunik izan. Hori bai: aukera izan zela ezin du inork ukatu.

Zein da festetako egitarauaren helburua oro har?

Azpeitiko udaletxean hiru alderdi daude batzordean eta bakoitzak bere ikuspuntua izango du. Baina nire ustez, festetako egitarauaren helburua festa denentzako izatea da, bai umeentzat, bai gazteentzat eta baita helduentzat ere. ■



Ione Bergara, kartel lehiaketaren irabazlea. Argazkian ikusten den kartela aukeratu du Antzerki Topaketetarako erakusketara hurbildu den ikusle goak eta epaimahaiak onena bezala. Guztira kartel lehiaketara 25 lagun eta 32 kartel aurkeztu dira aurtengo edizioan.

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

motxien

Osasunkume lehiaketan Karmelo Etxegarai Ikastola eta Jesusen alaba ikastetxeak saridun

Osasunkume Programaren eskola lehiaketan Karmelo Etxegarai Ikastola eta Jesusen Alabak Ikastetxeak aurkeztutako lanak saria jaso dute. Sari bezala oroitzapeneko plaka bana jaso dute herriko bi ikastetxeek.


'Euskara merkataritzara' egitasmoa martxan da

Ekainak 9an udaletxean *Euskara merkataritzara* egitasmoa aurkeztu zen. Bertan udaleko arduradunak eta Alde Zaharra eta UEME merkatarien elkarteetako ordezkariak izan ziren. Siate enpresa arduratuko da euskararen erabilera merkataritzan sustatu asmoz egingo den kanpaina aurrera eramateaz.

KMK'00 lasterka apustua uztailak 23ra atzeratu da azkenean

KMK'00 aldeko Andoni Egaña bertsolaria eta Diego Garcíaren korrika apustua pasa den ekainaren 25ean izan behar zen, baina uztailak 23ra atzeratu da. Eguerdiko 12:00-etan izango da zezenplazan. Atzerapeña, Diegoren lesioagatik izan da.

erretratutan



INAKI URANGA

San Juanetan sua eta jaiak


Sanjuan bezperan, ekainak 23an, ohi bezala herriko hainbat auzo, txoko eta baserritan sanjuan sua piztu zen. Herriko jende ugari biltzen da suaren inguruan; baten batek suaren gainean saltoka sustorik ere hartu zuen. Bestalde, urrestildarrek

eta oñaztarrek San Juan jaiei hasiera eman zien. Kaleran ere ospatu zen jairik, Enparan kaleko jaiak.

Izarraitz pilotalekuan Eskolarteko 20. Bertsolaritza Txapelketa izan zen ekainaren 2an.

Jende ugari bildu zen, ikastetxetako haur eta gazte, guraso eta bertsozale. Handietan finaleira, beste behin, Beñat Lizaso herrikidea heldu zen. Txapela berriz, Iban Urdangarinek jantzi zuen. Gaztetxoetan, Hernanikoek.

Eskolarteko bertso txapelketako finala



NEREA URANGA

Hiru egunetan argirik gabe



NEREA URANGA

Ekainean hainbat gorabehera izan dira herrian argia dela-eta. Aurrenekoz, ekainak 16 arratsaldean, argia joan zen.

Bigarrenkoz ekaitza zela-eta hilak 26an. Eta hirugarrena berriz, eguerdi artean hila-ren 28an. Semaforo, dendetan, ile-apaindegietan, argia noiz etorriko zain izan ziren. Udaltzainak ez zekien zehatz zer gertatzen

zen. Iberdrolara deitu eta zirkuitu batek salto egin zuela erantzun ziguten, konpontzeko lanetan ari zirela. Badela toki bat zirkuitoek nahiko arazo ematen dituztena eta horregatik joan ohi dela argia. Argazkia 28koa da, semaforoetan.

Saskibaloian eta futboleantxapeldun



INAKI ARANBURU

Karmelo Etxegarai ikastolako 6. mailako ikasle taldeak emaitza bikainak lortu ditu saskibaloian eta futboleantxapeldun. Gipuzkoa mailako alebiren saskibaloilehiaketan saridun izan zen maiatzaren 20an Donostian jokatu zen finalean. Futboleantxapeldun, herri-mailako eskolarteko txapelketan txapeldunen kopa lortu zuen.

motxean

Ingurugiro sentsibilizazioa suspertuz auzolanean

Ingurugiro Etxeak eta Azpeitiko Udaleko Ingurugiro Batzordeak herritarren ingurugiro sentsibilizazioa sendotu eta suspertu asmoz, auzolanak martxan jartzeko asmoa dute irailetik aurrera, bi ibilbide prestatuz; bata aisialdirako ibilbidea eta bestea ibilbide didaktiko bezala prestatuko dira. Hau dela eta, iraillean Azpeitiko eta Azkoitiko talde eta batzordeei deia luzatuko zaie.

Xabier Alberdi Beltza futbolaria Eibarrera bi urterako

Xabier Alberdi Beltza-k (argazkian) bi urterako sinatu du Eibarko futbol taldearekin. Denboraldi honetan Sabadellen jokatu du Xabierrek, Realak utzita. Espainiako Bigarren A Mailan dago Eibar. Bixente Oiarzabal urrestildarrak berriz, Eibar utzi egin du, 11 denboralditan han jokatu ondoren. Ez diote kontratua berri Bixenteri.



motxien

Amaiur eztabaida prozesua aurkeztu zen herrian

Haika gazte erakunde berriak, Amaiur eztabaida prozesuaren aurkezpena egin zuen Enparanen ekainak 16an. Bertan, prozesuaren helburu nagusiak eta azaroa bitarteko egitekoen berri eman zuen. Azaroa bitartean, herrian gauzatu beharreko helburuak eta eman beharreko pausoak batzar zabalen bidez gauzatzeko asmotan direla azaldu zuten aurkezpenean.

Sahatsa dantza taldea Greziara joango da

Sahatsa dantza taldeak abuztuan Greziako dantza jaialdi batean parte hartuko du. Greziako ipar-ekialdeko Agrinio hirian abuztuak 21etik 28ra ospatuko den jaialdian parte hartuz.

erreturatutan

Presoen eskubideen aldeko martxan azpeitiarrak



Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak eta Senideak-ek antolatuta, ekain erdialdean presoen eskubideen alde

Donibane Garazin (Nafarroa Beherea) hasi zen martxa herrira heldu zen uztailaren 3an. Herriko 68 taldek eraman zuten lekukoa, txandaka. Besteak beste, ikastetxeetako ikasle, guraso eta langileak, kirol taldeak, kultur taldeak, musika-riak, elkarteak, sindikatuak eta hainbat tailerretako langilek parte hartu zuten. Ordea, herrian parte hartzeaz gain, orain egun batzuk martxa Nafarroan zela, Azpeititik autobus bat joan zen martxaren zati batean lekukoa eramatera. Argazkian, Nafarroara joan zen azpeitiarren taldea azaltzen da.



AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Udalak diruz lagunduriko aldirakaria

bide

Sukaldeko altzariak eta horman sartutako armairuak neurritan.

Landeta Auzoa - AZPEITIA
Tel. eta Faxa: 943 81 17 47

SONS - MARIKAR

estetikako azken teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

LORADENDA

IRENE ALTUNA

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiolo-Bide, 25 - AZPEITIA



'Freekien' paradisuan zintzilik

INAKI URANGA

Kirol eskalada zaleek lokala prestatu dute

Jolasa batzuentzat, afizioa besteentzat, bizioa beste hainbatentzat, eta bakarren batentzat berriz, bizimodua da eskalatzea.

Gustora daude, harro hiru hilabetetan elkarlanean, «denak zerbait ja-ri dugu» dio Joxe Luis Urkizu *Beltza*-k, egin duten rokodromoarekin. Ezinbestekoa izan baita alokairuan euren aldetik lo-

► Orain hiru hilabete lanean hasi eta Ondarbidetatzean alokatutako lokal batean, forma desberdinak ateraz 120 metroko rokodromoa prestatu dute herriko gazte batzuek ► 60 bazkide dira lokalean, ez

bakarrik azpeitiarrak, azkoitiar eta zestoarrak ere badira. Patxi Usobiaga cibarko eskaltzaile ezaguna ere bertara etortzen da entrenatzera ► Lan guztia beraiek egin dute; egitura eta margo lana

Nerea Uranga

kala hartu eta lanean hastea. «Lehen Sastreren-eta lokalean ibiltzen ginen talde bat, eta beste bat Kiroldegian, berriz. Denok elkartu eta lokalak ikusten hasi ginen. Honek neurriak-eta ematen zituen eta berau aukeratu eta lanean hasi ginen», dio Beltzak. Bera ibili da *kapitain*, lokala topatu, egitura egiteko egurrak ekarri eta bukatu duten arte. Orain →

ikuspuntuak



Andoni Bastarrika (eskalatzailea):

«Lokala zoragarria da eta edozeinek atek irekita ditu. Kiroldegian ez zegoen kondizionirik: presak, kalitatea... Baita Beltza eta ere lokal gabe zeuden».



Leire Urbieta (eskalada zalea):

«Nik neskak animatuko nituzke. Neska gutxi gaude eta hemen neskek hasteko modua badute. Hasi berritan ibiltzeko eta erraz eskalatzeko modua dago lokale honetan».




Mikel Odriozola (eskalatzailea):

«Entrenatzeko oso leku ona da hau. Orain udan bero handia egingiten badu ere. Nahiz eta udalak lagundu, uste dut gehiago lagundu beharko lukeela».



Hizkera berezia

Txapelketa *konpia* da. *Blokean gelditzea* zer den ez da erraza ulertzea, sentsazio hori ez dugu nonbait eza gutzen; «bai neska: besoa ixtea»; beste batek dio «besoa 90 gradutan ixtea». *Kantue* diotenean heldulekuari buruz ari dira. Eta euskarri, *presa bakoitzari*, formagatik izena ematen diote; *buzoie* da heldulekurik handiena, *regletak*, *inbertidak*, *batmana*, *nintendue*, *eguzkia*... «*Romue*, *borobil-borobila* da». Hori *bueloa* dutena Ondarbidetan atzean biltzen eskalatzaile hauek. Argazkietan, lanetako faseak, eta beraiek eskalatzen.



ere, lokalera sartzen diren gazteei «azterketak zer moduz doaz?», galdetzen die Beltzak, errespetua sartuz bezala.

Elkartzeko gune, jolasleku eta entrenamendueta-rako toki egoki bat prestatu dute hormako zintzilikario hauek. «Jolasean ibiltzea da, puzzlea osatzea bezala da, baten irudimenarekin denak ondo pasatzen dugu», dio Beltzak.

Beti norbait dago lokalean, baina ez dute ordutegirik, jende gehiena lanetik atera ondoren joaten da. Orduan beti bost lagunetik gora egoten da bertan.

Herrian afizio izugarria dago eskaladarekiko; gero eta gazte gehiagok egingen du kirol hau. Afizio honen nondik norakoak ere azaldu dizkigu Beltzak: «Afizioa, Sastreroari-eta eskerrak; berez Az-

peitiko fanatismoa ho-riek esker hasi zen. Landak panel bat ikusi zuen eta montatu egin zen. Ni oraindik gazte nintzenean egurrezko takoak-eta egingen hasi nintzen. Gero Euskal Herriko Txapelketa izan zen herrian eta Kiroldegian rokodromoa egin zuten».

Maila ere ez da nolanahikoa herrikoa; Leire Agirre, Gorka Karapeto Kara, Beltza bera, Mikel



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

ICIAR SAN JUAN



Solarium bertikala
Estetika

Loiolabide, 19 beheka AZPEITIA Tfno.: 943 81 02 17



Gorka Karapeto
(eskalatzailea):

«Guk nahi genuen bezalako panel bat da. Kiroldegikoa txikia gelditzen zen entrenatzeko.

Aurrekontu txikiarekin, leku eder bat egitea lortu dugu azkenean».



Odriozola Plata... zazpi bat herrikide joaten dira txapelketetara, eta emaitzak ere bikainak izaten dituzte.

«Oinez ibiltzea ez da gure modalitatea, horman ibiltzea da gurea», dio Joxe Luis Urkizuk. Eskalada, mendizaletasuna, alpinismoa... horren inguruan badute hainbat zala-parta. «Gurea kirol eskalada da, beste modaitate bat», diote.

Leire Agirre
Eskalatzailea

«Lokal honetan asko dibertitu daiteke»

► Txapelketen denboraldian zabilta, ezta hala?

Azken lau asteburutan lau txapelketa izan ditut: Portugalen, Euskadiko Txapelketa, Espainiako Kopako lehenengo frogan Donostian, eta orain, berriz, *boulderreko* Espainiako txapelketatik etorri berri naiz Madrildik.

► Eta zer moduz doaz txapelketak?

Hauetatik hiru irabazi ditut, Donostian bigarren gelditu naiz. Denok izaten dugu egun konkreturen bat hobeto edo okerrago gaudena. Iosune Bereziartuk parte hartzen zuenean bigarren postuetan ibiltzen nintzen, orduan dena ematen nuen. Orain berriz, ni lehenengo postua ziurtatzera noa, horrek exijentzi eta presio bat jartzen du.

► Aurrera begira zer asmo dituzu?

Laster Munduko Ko-

pako lehenengo frogadut, Alpeetan. Iaz 16. postua lortu nuen eta hori ziurtatu nahi dut.


► Orain orduan, entrenamendu gogorrak egin beharko, ezta?

Ez, ez, orain ezin naiz asko entrenatu, lasai heldu behar baitut txapelketetara. Normalean, egun bat lehenago atseden eguna egiten dut.

► Zeure kasa entrenatzen al zara?

Bartzelonako bat Espainiako selekziokoa da entrenatzailea, baina urteekin ere asko ikasten da eta gutxi gora-behera badakizu nola entrenatu. Orain Kirolgik, psikologoaren laguntza-eta ematen digu eta hau oso ona iruditzen zait.

«Lokal hau egundoko salbazioa da niretzat»



Leire Agirrek 25 urte ditu eta jada eskaladan nazioarteko 12 garaipen lortu ditu.

Espainiako Txapelketa irabazi berri du eta herriko rokodromo berrian aurkitu dugu entrenatzen.

Nerea Uranga

► Lokalean egin duzuen rokodromoak zer suposatzen du, zuretzat?

Egundoko salbazioa da niretzat. Hiru hilabeteetan jardun dugu lanean, gogo handiarekin, bihotzez egin dugu eta azkenean entrenamendurako oso leku egoki bat prestatu dugu. Laguntza gutxi jaso dugu, baina, tira, nola bazkide asko nola garen, bakoitzari gutxi suposatzen digu. Lokal honetan asko dibertitu daiteke. ■

OLAKOR
g o z o t e g i a

Urbite Auzunea, 1 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) - Tfno.: (943) 81 46 65

UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea
Tel./ Faxe: 943 15 00 85
AZPEITIA



Bost urte konpondu ezinik

Etxeetako kalteen ordainik ez dute jaso

► 1995eko uztailak 22-23 bitartean mugitu ziren etxebizitzak ► Duela bost urte Hartzubia Hiribideko zenbait etxebizitzetan gertatutako kalteen auziak konpontzeko itxurarik ez du ► Jabeek, Marcial Ucin egiten ari zen lanekin lotzen dute auzia

Uztarria

Bost urte pasa ondoren, Hartzubi Hiribideko bizilagunek, konponbidea bilatu nahian, euren auzia kale-ratu dute; batik bat, bost urte epaitegietan eta bileretan jardun ondoren, uztailako bi egunetan euren etxeziztza osoan gertatutako mugimenduak eragindako kalteei irtenbidea bilatu nahian. Denbora aurrera joan ahala konponbiderik ez

zutela ikusten-eta, Hartzubiko bizilagunek otsailaren 24an udaletxera jo zuten idatzi batekin: «Oso molesto gaude, keak, leherketak, jasan behar ditugu



egunero, eta nolabaiteko erantzun baten bila joan ginen; orduan, erantzuna emango zigutela agindu ziguten». Ordea, erantzunik jaso ez eta pasa den maiatzaren bukaeran egin zen udalbatzara agertu ziren bizilagunak, ume eta guzi. «70 bat lagun joan ginen. Artean erantzunik jaso gabe geunden, eta plenoan esan genuen horrela jarraituz gero ekintzak egiten hasiko ginela. Ekainak 9 inguruan esan zigiten uztailaren lehenengo astean bileraren bat izango genuela», azaldu du bizilagunen batzordeak.

Etxebizitzak jasandako kalteaz gain, gaur egun jasaten duten zarataz, keaz eta leherketek kezu dira: «Azkenaldian, zarata eta kea jasaten ari gara. Zarata, gauez lehoiak itxita, etxe barruan 47 dezibeliokoa da eta irekita 55 dezibeliokoa. Neurketaren agiria eskatua dugu udaletxean».

Uztailako egun hura

1995ko uztailak 22 eta 23 bitartean gertatu zen etxebizitzaren mugimendua. Bertako bizilagunak etxean gertatutako kalteez goizaldera jabetu ziren, eta Ertzaintza eta Udaletxeko ardu- →

(lau orrialdera segitzen du)

HERRIGINTZAREN AURRERAPAUSOA

Oro har, hitzarmen garrantzitsua da

Uztartaria herri aldizkariak eta Azpeitiko Udalak hitzarmena sinatu dute, eta hori dela-eta, balorazio hau egiten du Uztartaria Kultur Koordinadorak:

■ **1.** Uztartaria Kultur Koordinadorak garrantzitsutzat jotzen du hitzarmena. Izan ere, azpeitiarrentzat garrantzitsua da euskarazko aldizkari bat edukitzea, eta horretarako beharrezkoa da —filosofia zuzena edukitzeaz gain— baliabideak edukitzea. Udalak orain Uztartaria herri aldizkariari baliabideak (material informatikoaren kostuaren %40 eta lokala) eta dirua (Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputazioarekin batera aldizkariaren urteko aurrekontuaren %40) eman dizkio.

■ **2.** Hitzarmen honekin Azpeitian herrigintzak aurrerapausoa eman du. Herritarrok gauza guztiak ez ditugu utzi behar udalaren esku. Oreka behar da. Hala, talde, elkarte eta norbanakoek ekimena

PLENOKO BERRI

Ekainaren 22an egindako udal batzarrean onartu zen Uztartaria-Udala hitzarmena, eta hona alderdi bakoitzaren iritzia:

■ **EAJ:** Aldeko botoa eman zuen.

■ **EH:** Ezezkoa eman zion akordioari, bere us-tez zazpigarrengo puntua ezin delako onartu (atzean dago akordioa), «udalak ezin duelako jabetu bi orrialdeez».

■ **EA:** Aldeko botoa eman zuen.

hartu behar dute, betiere zabaltasunez jokatzuz eta ahalik eta babes handiena lortuz. Horrela lor daitezke helburuak. Uztartaria herri aldizkaria, herriko kultur taldeetatik sortutako Uztartaria Kultur Koordinadoraren egitasmoa da, lan handia egiten da

aldizkari zabala eta kalitatekoa sortzeko, eta hor daude emaitzak: oraingoz 350 bazkide, beste mila harpidedun, eta orain udalarekin akordioa. Horrek aurrera segitzeko animoak ematen ditu.

■ **3.** Udala herriko proiektu interesgarriak laguntzeko dago. Uztartariaren proiektu hau lagundu du, baina herrian badira beste batzuk laguntzarik ez dutenak (Koordinadorako talde batzuk, besteak beste). Eta laguntzeaz gain, udalak proiektu-egileen esku utzi behar du ekimena, konfiantza erakutsiz. Azken kontu hau dela-eta, hitzarmenak badu puntu ahul bat: aldizkari-ko udal gaien bi orrialdeena, udalak egingo dituelako, Uztartaria berak egin beharrean. Uztartaria proiektua aurkeztu zuenean (99ko urrian), esan zuen udaleko gaiei bi orrialde eskainiko zizkiola, zabaltasunez jorratuta betiere, hori baita kazetaritzako irizpidea. Udaleko egungo agintariak

ordea, jabetu egin dira bi orrialdeez (beste herrietan ez da gertatzen hau). Uztartaria maizta arte berak jorratu ditu udal gaiak, eta irakurleen kezarik ez du jaso, orrialde anitzak izan direlako. Presaketa behartuta, amore eman behar izan du Uztartaria, baina hor doa autokritika. Saia-tuko gara aurki proposamen logikoa egiten.

■ **4.** Hitzarmen honek bul-tzada ematen dio Uztartaria Kultur Koordinadorari. Izan ere, euskararen eta kulturaren aldeko proiektua da koordinadora, eta helburuok lortzeko bidean garrantzitsua izango da herri aldizkaria: gaiak plazaratzeko, sentsibilizazio lana egiteko... Hitzarmen honekin baliabide gehiago edukiko ditu Uztartaria Kultur Koordinadorak, eta, beraz, hemendik aurrera beste gauza batzuei (Euskara Elkartearen sorrera, Kultur Etxea...) hobeto eusteko moduan izango da.

■ **5.** Bukatzeko, herritarrei deia proiektuok babes ditzaten eta parte har dezaten. Helburua garbia da: Azpeitia euskaltzale, kultura aldetik dinamiko eta informazio aldetik aberats bihurtzea. Herria aterako da irabazle.

Uztartaria Kultur Koordinadora



UZTARRIAREN LOKALA

Badira hiru bat hilabete Uztartaria lokal bat duela. Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre da bere helbidea, eta udalak utzia da. Dena den, Uztartaria Kultur Koordinadorak behin-behineko lokal gisa du hori, herrian beharrezkoa delako Kultur Etxea, eta herri aldizkariak bertan beharko luke egoitza.

ALDIZKARIKO LANGILEAK

Aldizkari bat ondo egiteko, beharrezkoak dira horretara ariko diren langileak. Uztartaria maiztetik kazetari bat du egun osoz (Nerea Uranga; argazkian) eta publizista bat egun erdiz (Jaione Unanue). Kolaboratzaile sarea ere badu.

AKORDIOA BERA OSO-OSORIK

Hamabost puntuko hitzarmena da

Azpeitian, 2000ko ekainaren 27an,

ELKARTZEN DIRA

Alde batetik, Jose Maria Bastida Arrieta, Azpeitiko Udaleko Alkate-Lehendakari gisa, Udaltzako 1999ko uztailaren 3an hartutako akordioari jarraiki diharduena.

Bestaldetik, Iban Arregi Epelde jauna, adinduna; Azpeitiko biztanlea, Uztarrria kultur taldeko lehendakari baldintzetan parte hartzen du, zeregin honetarako ahalmendua delarik.

ADIERAZTEN DU

1. Uztarrria Elkarteak, Azpeitiko herriko informazio lokala osatzeko asmotan, aldizkari bat ateratzeko ardura hartu duela. Aldizkari honen ezaugarriak: dohanekoa izatea, finantziario pribatua nagusiki eta publikoa izango dituen, eta herrigintzan oinarritua izatea dira. Aldizkari honen sorburua euskara edota kultur taldeetan dago. Herrigintzan aritze hori, abiapuntu ireki eta zabaletatik bideratuko da, alderdikieretan erori gabe.

2. Azpeitiko Udalak, bestalde, herriko informazioa emateko helburua —era zabal eta ireki batean bideratzen bada behintzat, alderdikieretan erori gabe— herrirako onuragarria izan daitekeela uste du. Zentzu horretan, eta elkarte honek bide horretatik lan egiteko konpromezua hartu duenez, Udalak talde honekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazten du.

Honenbestez eta Udaltzako Osoak 2000ko ekainaren 21ean hartutako akordioarekin bat, Hitzarmen honen bidez aipatutako konpromisoa gauzatzera gatoz.

“Aldizkari honen sorburua euskara edota kultur taldeetan dago, eta herrigintzan oinarrituko da”

“Aldizkaria autonomoa izango da, eta informazio orok tartea izango du”

KLAUSULAK

Lehena: Aldizkaria, autonomoa izango da; hau da, edozein alderdi politikoren eraginpean izatea ekidingo du, iritzi ezberdinetako informazioari tratamendu bera emango zaiolarik. Herriko informazio guztiak tartea izango du aldizkari honetan eta inpartzialtasuna bereziki zainduko du.

Bigarrena: Herriko elkarte eta herritar orok parte hartu ahal izango du aldizkari honetan, bere iritzia emanez.

Hirugarrena: Hasiara batean aldizkariaren maiztasuna hila-betekoa izango da, nahiz eta aurrerago hamabostekaria izan asmo duen.

Laugarrena: Aipatutako zabaltsun eta irekitasunaren bitartek, aldizkariaren era guztietako eduki eta gaiak aztertuko dira. Hala ere, zaindu egingo da pertsonaren errespetoa edo norbaiti min eragin diezaiokien informaziorik ez ematea.

Bosgarrena: Aldizkaria euskara batuan idatziko da nagusiki eta baita azpeitiar eran ere.

Azpeitiar guztientzat sortutako aldizkaria izaki, hizkuntza eredu ere bihur daiteke irakurleentzat. Eta eredu izan daitekeen aldetik, ahalik eta eredurik egokiena izaten saiatuko da. Aldizkariaren argitaratuko den informazio ezberdinak gutxienezko hizkuntza kalitatea ziurtatu behar du. Euskara zuzen, zehatz eta aberats eta ulerterreza izatea nahi da. Horretarako Azpeitiko Euskara Patronatuko Hizkuntza Aholkularitza Zerbitzuak Uztarriri laguntzatxo bat eman diezaiolke.

Seigarrena: Irudiar dagokion garrantzia emango zaio aldizkari honetan. Aldizkaria bi koloretan aterako da, eta lau orrialde lau koloretan.

Zazpigarrena: Aldizkariaren atal ezberdinen artean, Udalar eskainia izango da bat, bi orrialdekoa. Udala informazio iturri garrantzitsua da herriko bizitzan, eta aldizkariak Udala eta herritarren arteko zubi izan nahi du. Udalar dagokion informazioa bildu eta idazteaz udala arduratuko da, betiere kazetaritzako estiloa eta irizpideak gordeaz. Hilero igorriko zaio Udaltetik Uztarrria aldizkariari bertatik sortu den informazioaren berri. Hau zuzentzeko edo gai honen inguruan sor daitekeen edozein arazo konpontzeko, Udalak eta Uztarriak bilerak egingo dituzte.

Zortzigarrena: Iritzien atalari dagokionez, edozein azpeitiarrere eskubidea eta aukera izango du nahi duen iritzia bertan emateko. Kolaboratzaile, erreportai eta elkarriketen atalei dagokionez, berriz, Uztarriak alderdikieretatik ihes eginez, iritzi politikoa ezberdinetako jendearen presentzia ziurtatuko da, guztien arteko oreka zainduz.

Bederatzigarrena: Zuzendaritza Batzordea hilean behin bil-



duko da aldizkariaren norabidea finkatzeko, eta Udaleko kultur ordezkaria hor izango da partaide moduan.

Hamargarrena: Uztarrriaren aldizkaria aurrera eramateko baliabide materialei dagokionez, Udalak bere jabegoko gela bat utziko dio elkarte honi, betiere goian aipatutako helburuetarako erabiltzen baldin bada. Gainontzeko materiala eta baliabideak elkarteak berak zuzenduko ditu. Proiektua abian jartzea nolabait laguntzeko asmoz, Azpeitiko Udalak 255.000 pezetako dirulaguntza luzatuko dio Uztarrria elkarteari.

Hamaikagarrena: Uztarrria elkarteak 2000. urterako 3.324.782 pezetako diru kopuruaren eskaera egiten die erakunde publikoei, bere aurrekontuaren %40. Azpeitiko Udalak, Uztarrria aldizkariari dirulaguntza emateko asmoa adierazten du, betiere Eusko Jaurlaritzak eta baita Gipuzkoako Foru



EKAINAREN 27-AN SINATU ZUTEN UZTARRIAK ETA UDALAK HITZARMENA

Uztarrak eta Azpeitiko Udalak sinatu dute hitzarmena; hain zuzen, joan den ekainaren 27an sinatu zuten Uztarrak Elkartearen lehendakari Iban Arregik eta Azpeitiko alkate Jose Mari Bastidak. Udalean sinatu zen akordioa, eta argazkian biak bertan ageri dira, sinadura botaz.

Uztarrak Kultur Koordinadorak egin zuen herri aldizkariaren proiektua, eta lehengo urteko urrian aurkeztu ziren Azpeitiko Udaleko hiru alderdi politikoei (EAJ, EH eta EAri). Udal Gobernu Batzordea azaroan eratu zen (EAJk eta EAk osatua), eta 2000. urteko aurrekontuak, berriz, ez ziren martxo bukaera arte onartu. Uztarrak eta Udalak martxorako lortua zuten akordioa, baina hitzarmena ez da sinatu ekain bukaera arte. Martxotik ekaina arteko egoerara egokitu nahian, Uztarrak sartu nahi izan du hitzarmenean aldaketa txiki bat (urtebeteko kontratua nahi zuen), baina azkenean lehen hitzartutakoa sinatu da. ■

Aldundiak ere Uztarrak aldizkariaren proiektua ontzat eman eta diruz laguntzea erabakitzen baldin badute. Era honetara, Azpeitiko Udalak, 2000. urterako 3.324.782 pezetako dirulaguntza ipiniko luke hasiera batean. Urtea aurrera doan bezala, beste erakundeetatik izaten diren diru sarrerak kenketa suposatuko dute diru kopuru honetan. Era berean, Azpeitiko Udalak 1999. urtean Uztarrak aldizkariak atera dituen aleen truke, 544.000 pezetako dirulaguntza emango dio.

Hamabigarrena: Uztarrak elkarteak, epealdi bakoitzeko diru kontuen azalpena edo diruzuriketa egin beharko dio Azpeitiko Udalari, izan dituen gastuak justifikatuz gastu agirien fotokopiekin.

Hamahirugarrena: Dirulaguntzen ordainketa bi epetan egingo da. %50a uztaila baino lehenago eta beste %50a urte bukaeran. Diru-ordainketa ba-

“Udalak 2000.

urterako 3.324.782

pezetako laguntza

ipiniko luke, eta

urtea aurrera doan

bezala, beste

erakundeen sarrerak

kenketa suposatuko

dute kopuruan”

koitza egin baino lehenago, aurreko epealdiko jarduerako diru kontuen zuriketa azaldu beharko du Uztarrak elkarteak. Era berean, izan dituen diru sarrerak ere azaldu egin beharko ditu. Dena dela, 2001. urteko egoera aztertzeko —aurrekontua eta izan daitezkeen gorabeherak— bilera bat egingo da urte bukaeran Udala eta Uztarrak artean.

Hamalagarrena: Uztarrak elkarteak ondorengo datuak azaldu beharko ditu dirulaguntza jaso ahal izateko: elkarteari dagokion erregistroan inskripzio datuak, Identifikazio Fiskalaren Zenbakia, Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Eskatzailearen kontu korrante zenbaki baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria. Urte osorako aldizkariaren programa eta aurrekontua.

Hamabosgarrena: Uztarrak elkarteak, aldizkari bezala aritzeko behar dituen legezko betekizun guztiak beregan izan beharko ditu. Gutxienez 1.000 ale argitaratu eta banatu beharko ditu betiere azpeitiarren artean. Uztarrak aldizkariak gutxienez orrialde kopuru hauek izan beharko ditu: 32 orrialde hilabekaria izanez gero, eta 24 aste-karia izanez gero. Gutxienez hileroko kaleratu beharko du Uztarrak bere aldizkaria.

Hamaseigarrena: Uztarrak, bere ale bakoitzean, Azpeitiko Udalaren dirulaguntza jasotzen duela adierazi beharko du, udaleko irudia aldizkarian azalduz.

Hamazazpigarrena: Hitzarmen honen epea bi urtekoa izango da, bi aldeek horrela nahi izanez gero bere luzapena erabaki dezaketen arren.



Eta bi aldeek adostasunaren seinale, hitzarmen hau sinatzen dute, bertan aipatzen diren leku eta egunean.

AZPEITIKO UDALEKO
ALKATE-LEHENDAKARIA
JOSE MARIA BASTIDA
ARRIETA J.

UZTARRIAKO
LEHENDAKARIA
IBAN ARREGI EPELDE J. ■



ORAIN ARTEKO ALEAK...



...ETA ETORRIKO DIRENAK

Eman izena Uztarrria herri aldizkarian, harpidedun edo bazkide bezala. Zu ere beharrezkoa zara.

(ikusi 35. orrialdea)

(16. orrialdeetik dator)

radunak ere bertaratu ziren. «Hasiara batean Marcial Ucin enpresan zerbait gertatu zela pentsatu genuen; jendea goizean oharatu zen etxea mugituta zegoela. Gero, 17:00ak aldera, Ertzaintza etorri zen eta kalera atera gintuzten. Udaletxeko jendea ere etorri zen, eta alkateak esan zigun bera egiten zela arduradun. Gero, etxeak egin zituen arkitektuak, Jabier Kortak, etxearen egitura aztertu zuen, eta arrisku fisikorik ez zuela esan zigun, eta segurantzza bat ematen zuela», azaldu dute etxejabeek. Orduan Udaletxeko udalbatza batean gaia aztertu zela diote etxejabeek. «Gu geu ere azaldu ginen plenora. Obrak egiteko baimenak eman gabe zeuden eta obrak hasita», diote Hartzubiko bizilagunek. Guztira, Hartzubiko Hiribidean 40 etxe, 3 negozio eta 4 lokal gertatu ziren kalteak.

Jabeek, etxearen mugimenduaren nondik-norakoa garai hartan Marcial Ucin enpresa egiten ari zen obrekin lotzen dute. «Marcial Ucin obra handi bat egiten ari zen; hamar bat metroko zuloa egin zuten labea egiteko,

gero urak hara joateko. Gure etxe atzeko urak ere bertara joan ziren. Zimentuaren azpian lurra dago, bere hezetasunarekin, eta honek hezetasuna galtzen duenean beheran egiten du. Euroestudios-ek egin zuen azterketan ere fenomeno hau baieztatu da. Apategiko iturria bera ere desagertu egin da, agortu egin delako». Euroestudiosen azterketa eta La-beinen azterketa izan dituzte eskuartean Hartzubia Hiribideko etxejabeek.

Gertatutakoa gertatuta gero, ondorengo bilera batean etxejabeek, Marcial Ucin enpresako ordezkariak, alkatea eta Herri Batasunako zinegotzi bat bildu ziren arazoaz hitz egiteko, eta

bertan proposamen bat aurrera eramatea erabaki zuten: «Bileran arazoaz hitzegin genuen, eta gremio guztiekin harremana zeukan norbati kalteen balorazioa egiteko eskatzea proposatu zigun alkateak. Denok ados agertu ginen proposamenarekin. Kaltearen balorazioa 54 milioi pezetakoa izan zen», diote bizilagunek.

Epaia aldekoa

Arazoa epaitegietara eraman zuten Hartzubiko etxejabeek, eta aurreneko epaia euren aldekoa izan zen. Halaber, sententzia hau errekurritua izan zenez, bigarren bat ere jaso dute, hau ere aldekoa. Ordea, etxejabeek zalantzak dituzte

sententzia nola beteko den aipatzen dutenean. «Kontua zalantzan dago. Epaiak ez digu onartu etxeetan gertatutako galerak edota orain arte gure poltsikotik gastatu ditugun 12 milioiak ordaintzea. Diru hori abokatutan, azterketak egiten, kaltearen balorazioaren aurrekontua egiten eta abarretan gastatu dugu. Epaiak bakarrik kalteak konpontzea jasotzen du», diote batzordekideek. ■



Marcial Ucin, kea botaz.

ICIAR SAN JUAN

I.S.

Ileapainketa
Auto - Makilajea

Loiolabide, 19 behea AZPEITIA Tfn.: 943 81 02 17

Harategia Odriozola

Harategi
Especializatu



Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15



HORTZ KLINIKA

Dr. Antonio Rafaniello

- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoia.
- Ahozko Zirujia.
- Implante integralak.
- Protesis mugikorraren sustituzioa, protesis fijora.
- Pieza gabekoa, sustituzioa pieza fijora.

Enparan n°8 - 1° Tel.: 81 67 36

UZTARO
HAURTZAINDEGIA

1975 - 2000

XXV. Urteurrena

0-3 urte arteko
haurren txokoa



UZTARO HAURTZAINDEGIA

Jesus eta Maria Komentua

943 81 31 90

20730 AZPEITIA

«Hau da ikastolaren...»

Kilometroak'00-ko kantua entzungai dago jadanik



Imuntzo eta Beloki taldekoak, Kilometroetako doinuaren egileak.

IMUNTZO ETA BELOKI

► **KMK'00rako Imuntzo eta Belokiren kanta aukeratu dute aurkeztutako en artean**

► **Ekainaren 14-15ean grabatu zen Elkar-en ► Ikasberri ikastolako haurrek eta txalapartariak ere parte hartu zuten grabaketan**

Nerea Uranga

P lazan goizean goiz elkartu eta denak Donostiara bidean goaz, Elkar grabazio estudioara, aurtengo Kilometroetako kantua grabatzera. Bezperan Imuntzo

eta Beloki taldeak grabatua zuen eurena, egun guzian aritu ziren horretan. «Nahiko azkar grabatu genituen; goizean 09:00tan etorri eta gida bat egin genuen, ondoren instrumentoak sartzen hasi ginen, eta gero ahotsak-eta aparte zuzendu genituen», kontatu digu Imuntzok itxarongelan gauden bitartean.


Itxarongelan Ikasberri ikastolako haurrak, neskak beti ere finagoak, multzoan jarri eta abestia entsaiatzen hasi dira; mutikoak berriz, kartatan jolasten.

Zurartean taldeko Oihana El-duaien eta Sergio Lamuedra

txalapartariak izan dira grabatzera aurrena sartu direnak. Bitartean, haurrak irakasle eta gurasoekin bueltatxo bat ematera atera dira, apur bat distraitzeko asmotan.

Txalaparta mikrofonoz josita ekin zaio grabaketari: «Bukaera ez duzue batera egin», dio teknikoak. «Ohitu gabe gaude horrelakoetara», erantzun txalapartariak.

Txalaparta grabatu ostean txikiaren txanda. Erdian mikroa dutela borobilean jarri, eta behin, bi aldiz, hirugarren aldiz ere, *Hau da ikastolaren festa nagusia...* kantatzeari ekin diote, dena emanda.



Umeak eta txalapartariak grabazio gelan.

NEREA URANGA

HITZAK

Hau da ikastolaren festa nagusia, ospatu gozatuaz behar den guzia.

Kilometroak bi mila jai bat biribila. hau da garaia goazen etorkizun bila.

Urola bihotzean
Urola ertzean
euskara mingainean
eta bihotzean.

Hau da ikastolaren...

Biharko helburuak nahi ditugu jarri, ikaslea helburu, herria oinarri.

Etsi gabe lanean jarraitu laguna egusenti ondoren baitator eguna.

Hau da ikastolaren...

Herri honen eguna argitzen denean argi egin dezala denon barrenean.

Euskalduntze bidetik ekin eta jarrai, oraina geurea da geroa ere bai.

Hau da ikastolaren festa nagusia, ospatu gozatuaz ahal den guzia.

Xebaxtian
LIZASO
Bertsolaria

«KMK ikastolaren festa dela azpimarratu nahi izan dut»



Xebaxtian Lizaso bertsolaria eta Ikasberri ikastolako gurasoak egin ditu aurtengo kilometroetako kantua-ren hitzak. Gero musika jarri zaie letrei.

Nerea Uranga

► Zertan oinarritu zara KMK'00 ko kantua-ren hitzak egiteko?

Nik, letra hauek egi-terakoan, Kilometroak ikastolaren festa dela azpimarratu nahi izan dut. Oraina eta geroa aipatzean ikastolaren filosofia azaldu nahi izan dut. Ikastola, euskara eta herria lotu nahi izan ditut. Gero, baita ere, aurtengo kilometroen kokalekua azaldu dut, eta horretarako Urola bailara aipatu dut.

► Aurreneko aldian al duzu kantu baterako letra idazten duzuna edo sarritan idazten dituzu?

Bertsolariek eta trikitilariak askotan kantatu izan dute elkarrekin; trikitilariekin-eta ibilia naiz. Baina normalean alderantziz egin ohi da, lehenengo musika jartzen da, eta gero hitzak.

«Ikastola euskara eta herria lotu nahi izan ditut»

► Ze iruditu zaizu azken emaitza?

Kantua polita gelditu da. Bertsioen artean, KMK-kin gehien identifikatzen zena hau zela-eta bertsio hau aukeratu zen.

Imuntzo

Solnizjolea

«Kristoren poza hartu genuen gure kantua aukeratu zutenean»



Imuntzo eta Beloki taldearen kantua hautatu da **KMK'00 ko kantu bezala**. Imuntzok berak egin du doinua, taldearen laguntzaz.

Nerea Uranga

► Zuretzat ustekabea izan al da aurtengo Kilmetroetarako zuen kantua aukeratu izana?

Espero, gurea aukeratu-ko zutenik ez genuen espero. Esan zigutenean gurea aukeratu zutela, kristoren poza hartu genuen. Gainera, azkar esan ziguten, egun gutxi barru.

► Zuk konposatu duzu kantua, ez da hala?

Nik egin nuen kanta eta gero taldean osatu genuen. Bakoitzak bere ideiak eman zituen.

«**Kantuak reggae, ska eta euskal kutsua ere badu**»

► Zuen estiloan sartzen da kantua, edota KMK tarako delako estiloa moldatu duzue?

Gure estiloa pixka bat sartzen da; reggae, ska, gero euskal kutsua ematea, eta umeen ahotsa hor egotea nahi izan dugu, azkenean ikastola baten ekintza zuzenean isladatzen duen gauza baita.



Kantuaren aurkezpena ◆ KMK'00ko kantua-
ren aurkezpena ekainak 29an egin zen Donostiako Udal Liburutegian. Bertan Mailu Gurrutxaga KMK'00ren koordinatzailea, Iñigo Agirre KMK'00ko batzordeko ardura-duna, Xebaxtian Lizaso hitzen egilea, Imuntzo eta Beloki kantuaren egileak eta Angel Valdes Elkarlanekoa izan ziren.

URBISTONDO MARGOAK

MARGO MUNDUAN ESKEINTZA PAREGABEA

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
- LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Emparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
E-mail: Luba.ase@Euskalnet.net

Pozteko asmotan

Naiara Izagirre ■ R. M. Azkue olerki lehiaketan saria jaso du

Naiara Izagirre



Hamabi urte ditu, aurtan lehen hezkuntzako seigarren maila bukatu berri du Karmelo Etxegarai Ikastolan. Aurreneko aldia da literatura leihaketan parte hartzen duena, eta olerkian saridun gertatu da. Idaztea eta musika ditu gustoko, baina batez ere olerkia idaztea atsegin du.

Udazkeneko gau haizetsuan logurearen logurez, negargurez lizarraren hostoak orduz ordu erortzen, segunduero haizea putz eta putz.


Zer da mundu hau tristetasunaren lekua politikoen jabegoa biziaren oinarria.

Batzuek han eta besteak hemen, baina, udazkeneko gauean hostoak lurtean hotza inguruan

Leihotik begira, dardaran malkoak begian makal makal

Hurrengo urtaroon, Neguan POZTEKO asmotan

POZTEKO
ASMOTAN.



Euskal Herria,34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 81 50 72

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

MITXEL



ARROZTEGIA S.L.

Barruko ate eta tolesgarriak
Ate trinko eta blindatua
Oimaulki parketa eta frisoak
Aramairu horma sartuak
Leihoak - Harotzlanak

Arretxe kalea, 19 - Landeta Industrialdea
Tel./Faxa: 943 81 01 65 - Apdo. 12 - 20730 AZPEITIA

Kontua da...

Zorrak zor...



Imanol Elias
Historialaria

Herri jaiak gertu zirela-eta kontuak atera behar ziren udalean, herritarren nahiak nolabait betetzeko. Horrela, 1651eko maiatzaren 21eko udalbatzan adierazi zuen alkateak, aurrez erabakita bezala ahalmena zuela Udalak 200 errealek gastatzeko Inazio donearen jaietan, eta hala egin beharko zela, zerbaitxo bat gehiago erantsirik erral-



oSaSuNa

Lengoratuaren arrain zabala



Julian Bereziartua
Medikua

Oso arrain preziatua da. Urte guztian harapatzen da Bizkaiko Golkoaren ipar aldean, Galiziar itsasertzean eta Cadizeko Golkoan. Galizia eta Britania aldekoak arrainen haragi gogorragatik bereizten dira; hegoaldekoak finagoak dira.

Kolorez zuriska eta eskama txikiz babestua du azala. Batazbesteko luzera 30-40 zentimetrokoa da. Pisuak 300 bat gramokoa, eta 60 zentimetro neurtzen dituenean 3 kilora iritsi daiteke. Gaez elikatzen da, zizare, krustazeo eta arrain txikiez; egunez berriz, hondar azpian egoten da.

Lengoratuaren haragia zapoetsu eta fina da, arrain lauetan preziatua.

Lengoratuaren %50 ez da jaten. Jan daitekenaren %17-19 proteinak dira, balore biologiko altuko aminoazidoz osatua. Koipe kantitatea aldagarria da garairen arabera, %0-2 artean, baina koipe ona du osasunerako. Karbohidrato gutxi du. Bitamina A, D, E eta K dextente, eta mineralatik batez ere fosforo.

100 gramo lengoratuak 80-100 kaloria sortzen dizkigu (arrautza batek adina).

Edozeinek jan dezake gazteak, zaharrak, osasuntsuak edota gaixoak.

Ez ahaztu arrain honek itsasoaren usaina behar duela. Kontuz arrain usaina badu. Beharbada berandu zabiltza.

HARAGIA

Lengoratuarena zapoetsua eta fina da, arrain lauen artean preziatua.

SuKaldaRitZa

Txanpien entsalada epela



Plater baten erdian patata egosia jarri xaflatan ebakita, inguruan letxuga txiki-txiki ebakita,

tira finetan moztutako pikillo piperra eta urdaiazpikoarekin. Azken honi pika-pika egindako arrautza egosia

i nfoRmatika

RAM eta diska gogorra

RAM memoria eta diska gogorraren kapazitatea, zertan ezberdintzen dira?

Mila aldiz entzun dugu «nire ordenagailuak 64 mega ditu edo 8,4 giga ditu». Biak nahastu egin ohi ditugu askotan, baina ezberdintzen errazak dira: ordenagailuan gorde behar diren datu edota programak diska gogorrean



doiak herriratzeko; aurretik izandako agintariak ahalegindu baziren ere beste diru bat lortzen herritarrek zenbait ekintza gehiago aurrera eramateko.

Adierazi zuen baita ere, bere iritziz, herriaren aldetik ezinezkoa zela zezenketa bat egokitzea, probintziako herri nagusietan egiten zen bezala; eta herritarrak beraien gain hartu behar zutela horrelako zerbait antolatzea.

Nahiko iskanbila sortu zuen alkatearen iritzia bildutako-

en artean. Era guztietakoak zeuden lehenago edo geroago hurbiltzen joan zirenen artean.

Azken batean, gaia jorratzea eskatu zuten agintariek eta bazterrerak hurbildu zirenek, gero, euren botuez. Batetik, fidela zenak eskatu zuen udalak 300 erreal ematea urtean, diru horrekin herrira zezenketarako sei zezen ekartzeko; eta beste bi eskatzea harakinari, kalee-

ZEZENKETA

Alkateak adierazi zuen udalak ezinezkoa zuela eta herritarrek antolatu behar zutela.

tan zehar erabiltzeko jaietan. Berarekin bat egin zuten beste 35 lagunek.

Bestetik, Pedro Beltran Oiarzabal jaunak proposatu zuen aldataririk ez egitea; hau da, 200 erreal bakarririk gastatzea jaietan,

batez ere ikusirik zorrak zituela herriak. Baina bere iritzia hamabostek bakarrik hartu zuten ontzat.

Zorrak zor, herriko jaietan zezenak behar derrigorrez...

Mertxe / Zubi Zahar Jatetxea

Txanpinoiak ■ Patata egosia ■ Tomatea ■ Ietxuga ■ arraultza egosia ■ Urdaiazpikoa ■ pikillo piperra ■ baratxuri ale bat.

gehitu eta gozatu entsalada.

Zartagi batean, txanpinoiak xaflatan moztu eta ondoren kipula, baratxuria eta urdaiazpikoa gehitu.

Txanpinoiak egiten ari direla, ozpina bota eta ondoren entsalada gainean jarri.

Besterik gabe, on egin dagizuela!

gordetzen dira. Zenbat eta datu edo programa gehiago, leku gutxiago diska gogorrean. Gigabyte-etan neurtzen da (GB).

Beste kontu bat da RAM memoria. Honek eragin zuzena du ordenagailuaren abiaduran. Zenbat eta RAM memoria gehiago, ordenagailu azkarragoa izango da.

Megabyte-etan neurtzen da (MB).

Beraz, ordenagailuari aldatetako egiterakoan, norberak behar duen neurrirako diska gogorra eta RAM kopurua aukeratu beharko dugu.

Sarea

Informatika denda

EuSKaRa

Baita zea re!

Aitor Arruti

Arantza Azpillaga

Euskal Filologian lizentziatuak

Lehen ere aipatu izan dugu gazteleraren eraginez zenbait arazo dakartzan *ere* partikulak ez digula gure inguruan halako buruhausterik sortzen. Aldian-aldean baina ez dira entzuten «*baita re Mirenek*» eta gisakoak gure artean. Aldiz, askotan eta egoki erabiltzen da «*baita zea re!*» arrazoi kentzailea.

Hala ere, azkenaldian erruz gehitu eta indartu diren euskal komunikabide eta idazle batzuen eraginez (*Euskaltzaindia dixit*), kontuak ez dira hain garbiak idazterakoan. Ustez eredu onak eta zuzenak direnak ez dira hala izaten beti. Eredu okerrak jarraitzeak ekarri

ohi ditu erabilera okerrak ere. Esate baterako, askotan ikus daiteke *baita ere* jarraian idatzita, gehienetan bien tartean zerbait jarri beharko genukeen arren.

«Uztarria irakurtzen dinat, *baita* kritikatu *ere*» idaztea dago ondoetaez «... *baita ere kritikatu*». Horrelako akarrazoi kentzailea.

tsak euskara idatzitik ahozkoa pasatzeko arriskua dago, beste hainbatetan bezala.

Demagun auzoko Kepa eta Mirenek topo egin eta hala esaten diotela elkari: «e-mailek idaztie gustatzen zatek» «Baita-re neurri!». Horretan eroriko ote gara ba? ezta *pentatu re!*

BAITA ERE
Gehienetan bien tartean zerbait jarri beharko genuke

usayaiak

57 azpeitiarrek bukatu zuten Sabiñanigoko proba

Txirinduzaleen artean *Quebrantahuesos* moduan ezagutzen da

- ▶ 200 kilometrotik gorakoa da Sabiñanigoko txirindu proba
- ▶ Azpeitiko ziklista ugarik parte hartzen du
- ▶ Aurten ere gogor ibili dira azpeitiarrak Sabiñanigon

Josu Azpillaga

Ekaina iritsi aurreko hila-beteetan ohi baino txirinduzale gehiago somatu da Azpeiti inguruko errepideetan. Ohi baino bizkor eta serioago entrenatzen, gainera. Arrazoia nahikoa ezaguna da honez gero: txirinduzaleen artean *Quebrantahuesos* bezala ezaguna den eta Huescako Sabiñanigo herrian ospatzen den proba, hain zuzen ere. Aurtengo edizioa ekainaren 17an izan zen.

Profesionalak izutzeko moduko gogortasuna

200 kilometrotik gorako proba



lagoba Iturzaeta, Sabiñanigon azpeitiarren artean lehena.

gogor igaro behar izaten dituzte. Azken aurreko Portalet 29 kilometro luze da, eta Marie Blanche famatuak berriz %15 inguruko desnibelak ditu bere azken 4 kilometroetan. Baina ibilbidearen luzera eta gogortasuna gutxitxo non-bait, eta gehientsuenak erlojuari begira ematen dituzte pedalkadak.

Azpeititik zenbat joan diren jakiterik izan ez badugu ere, Edelweiss talde antolatzaileko partaide batek bukatu zutenen zerrenda eman dio UZTARRIARI: guztira 57 azpeitiarrek bukatu zuten; denara 4468 lagunek bukatu zuten Sabiñanigoko

txirindulari proba gogor eta exigentea. ■

da Sabiñanigokoa, eta ibilbidean Piriniotako lau mendate

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH

- BATXILERGOAK

- HEZIKETA ZIKLOAK

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN ESKLABATAN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Merkataritza
 - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialak
 - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Administrazio eta finantzak
 - Zur eta altzari produkzioa
 - Mekanizazio bidezko produkzioa
 - Informatika sistemen administrazioa
- **Batxilergoak**

MATRIKULAZIO EPEAK:

- **Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak:**
Uztailaren 3tik 7ra
- **Batxilergoak:**
Uztailaren 3tik 10era
- **Goi Mailako Heziketa Zikloetarako epe berezia:**
 - Eskera egitea: Uztailak 11-12
 - Matrikulazioa: Uztailak 24-27

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67

Loiola hiribidea, 4 (Esklabak)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 37 70 Fax.: 943 81 66 20

Perdillegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

azpeitiarren sailkapenak

Izena	Denbora	KM/H	Postua
AGIRRE, Jon	7:50:00	26,1	1324
AGIRRE, Imanol	6:42:00	30,5	278
AGIRREZABAL, Aitor	8:03:00	25,4	1593
AGIRREZABAL, Unai	8:06:00	25,3	1654
ALBERDI, Javier	8:39:00	23,6	2247
ALDALUR, Jose A.	8:04:00	25,4	1635
ARAMBURU, Peio Mirena	8:34:00	23,9	2151
AROCENA, Jose L.	6:57:00	29,4	438
ARREGI, Aitzol	8:20:00	24,6	1905
ARRUABARRENA, Juan M.	8:39:00	23,6	2244
ARRUTI, Iñigo	7:32:00	27,2	1002
ARTETXE, Mikel	8:08:00	25,2	1711
ARZAMENDI, Iñaki	8:58:00	22,8	2513
AZKUE, Roman	10:18:00	19,9	3592
AZKUNE, Migel Anjel	8:03:00	25,4	1597
BELOKI, Juan Cruz	11:32:00	17,7	4008
BELOKI, Alberto	7:50:00	26,1	1313
BELTRAN, Pedro	8:01:00	25,5	1562
BLANCO, Jose Ignacio	8:06:00	25,3	1669
EGUIGUREN, Jon Mikel	6:45:00	30,3	298
EIZAGUIRRE, Xabier	6:57:00	29,4	445
ETXANIZ, Jabier	10:18:00	19,9	3594
GALDOS, Jon	8:34:00	23,9	2152
GARATE, Jon	7:56:00	25,8	1441
GARATE, Garikoitz	7:32:00	27,2	1018
GOROSTEGI, Jon	6:42:00	30,5	281
GOROSTOLA, Jose F.	8:39:00	23,6	2251
GURRUCHAGA, Jose A.	8:04:00	25,4	1631
GURRUTXAGA, Jon	7:31:00	27,2	962
IBARGUREN, Luis Migel	10:16:00	19,9	3574
IBARGUREN, Igor	8:01:00	25,5	1554
ILLARRAMENDI, Javier	8:21:00	24,5	1912
ILLARRAMENDI, Mikel	8:08:00	25,2	1703
IMAZ, Karlos	9:50:00	20,8	3306
ITURBE, Haritz	8:34:00	23,9	2141
ITURZAETA, Iagoba	6:15:00	32,8	58
IZAGIRRE, Asier	8:51:00	23,1	2411
LARRAÑAGA, Jose M.	6:26:00	31,8	132
LASA, Xabier	6:23:00	32,1	110
LAZAROBASTER, Unai	8:01:00	25,5	1563
LAZAROBASTER, Jagoba	9:55:00	20,6	3341

LAZKANO, Ibon	9:55:00	20,6	3340
MARTIJA, Igor	8:58:00	22,8	2508
MUGURUA, Mikel	8:14:00	24,8	1803
ODRIOZOLA, Iñaki	7:55:00	25,8	1421
ODRIOZOLA, Iñigo	7:39:00	26,7	1134
OTAEGI, Ibon	9:08:00	22,4	2709
PORTILLA, Iñaki	10:18:00	19,9	3593
RUIZ, Fernando	9:24:00	21,8	2964
SAGARDOGUI, Mikel	8:20:00	24,6	1889
SANSEBASTIAN, Iosu	9:50:00	20,8	3304
SASIETA, Jose Manuel	6:31:00	31,4	168
SEGUROLA, Josu	6:41:00	30,6	251
SUDUPE, Andoni	6:26:00	31,8	129
UNANUE, Eneko	8:34:00	23,9	2167
URIA, Iagoba	7:12:00	28,4	657
URRESTILLA, Jon	8:03:00	25,4	1598



Axxiola, proban. Pantani dirudi.



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50

Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830

E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA

(Gipuzkoa)

Osatuz

Fisioterapia zentrua

Errehabilitazioa

- Hezur hausturak
- Bihurrituak
- Tendinitisak
- Protesiak
- Gaisotasun neurologikoak e.a.

Masaia

- Terapeutikoak
- Kirol masaia

Arrabal 12 Azpeitia 943 815802

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta hilaren 20rako bidali gutuntxo batean helbide honetara: Uztarrria Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:



Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Zubi Zahar jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta **UZTARRIAREN** elastiko bat ere jasoko du.

aurreko argazkia




...eta soluzioa



irabazlea: **Nagore Godoy**



Afaria eta elastikoa ◆ Nagore Godoy izan da zortzigarren irabazlea. Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Lau Bide jatetxean (bertakoa ere ageri da argazkian), eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
 - Erretina askatze.
 - Makulako gaisotasunak.
 - Erretinopatia diabetiko konplikatua.



Esther Usandizaga
FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K
Tfnoa: 943 15 17 52
20730 Azpeitia-Loiola

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurilaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48
Osasuna	
Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22
Komunikabideak	
Uztarrria (berria)	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

farmaziak gaez

- Uztailaren 3etik 9ra**
Aseginolasa.
Plaza Goikoa,2.
81 13 50.
- Uztailaren 10tik 16ra**
Ruiz (Azkoitia).
Kale Nagusia, 13.
85 19 66.
- Uztailaren 17tik 23ra**
Etxebeste.
Jose de Artetxe, 6.
81 59 74.
- Uztailaren 24tik 30era**
Jaen (Azkoitia).
Ibaiondo, 28.
85 06 60.

Alderdi politikoak	
EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11
Sindikatuak	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28
Ikastetxeak	
Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28
Garraioak	
Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkartea	85 25 87
Taxiak	81 13 07
Kultura - Euskara	
Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria (berria)	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

gune publikoen ordutegia

- Udaletxea**
Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.
- Ixpixioa**
Egun osoz irekita.
- Igerilekua**
Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.
- Kiroldegia**
Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.
- Udal Liburutegia**
Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

autobusak

JOATEKO	ITZULTZEKO
<p>Azpeitia-Zestoa-Donostia Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2). Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15. Igandek eta jaiegunak: 15:10, 19:15. Enpresa: La Guipuzcoana. Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.</p>	<p>Donostia-Zestoa-Azpeitia Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30. Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00. Igandek eta jaiegunak: 18:00, 20:00. Enpresa: La Guipuzcoana. Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.</p>
<p>Azpeitia-Eibar-Bilbo Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30. Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30. Igandek eta jaiegunak: 9:30, 19:30. Enpresa: Pesa.</p>	<p>Bilbo-Eibar-Azpeitia Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00. Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30. Igandek eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00. Enpresa: Pesa.</p>
<p>Azpeitia-Bilbo-Leioa Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30. Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.</p>	<p>Leioa-Bilbo-Azpeitia Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00. Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.</p>
<p>Azpeitia-Azkoitia Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25. Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Azkoitia-Azpeitia Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00. Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeitia-Zestoa-Zumaia Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10. Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05. Enpresa: EuskoTren. Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.</p>	<p>Zumaia-Zestoa-Azpeitia Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00. Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15. Enpresa: EuskoTren. Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.</p>
<p>Azpeitia-Zestoa-Zarautz Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10. Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Zarautz-Zestoa-Azpeitia Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45. Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeitia-Zumarraga (hospitela) Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25. Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Zumarraga (hospitela)-Azpeitia Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30. Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeitia-Errezil-Tolosa Astegunak: 6:55, 13:55. Asteburuak eta jaiegunak: - Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Tolosa-Errezil-Azpeitia Astegunak: 9:30, 18:30. Asteburuak eta jaiegunak: - Enpresa: EuskoTren.</p>

uztaila

3 (astelehena)

■ EUSKARA.

Mikelats AEK euskaltegiak EGA eta hizkuntz eskakizunen inguruko ikastaroa antolatu du uztaileko. Ikastaroa 100 ordukoa da eta 16.000 pezeta kostatuko da. Informazio gehiago nahi duenak 151089 telefonora deitu dezala.

8 (larunbata)

■ DANTZA.

Azpeitia Dantzan egitarauaren barruan Valentziako Alimara dantza taldea izango da dantzan Enparantza Nagusian. 22:30tan.

12 (asteazkena)

■ JUBILATUAK.

Aitonena egun guztiko irteera antolatu du Iruñera, sanferminetara. Irteera 09:00etan izango da Enparantza Nagusitik. Hamarretakoa Etxegaraten egingo da, eta bazkaria Beriaingo Alaiz ostatuan. Izen ematea: 3.000 pezeta.

15 (larunbata)

■ KONZENTRAZIOA.

Tabernariak antolatuta eta presoan aldeko Plataformak lagunduta, Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean konzentrazioa. Plazan. 12:00etan.

■ BIZIKLETA MARTXA.

Urola garbi baten alde bizikleta martxa izango da Azkoititik Zumaiara. Azpeitiko plazatik. 4:45etan igaroko da.

■ MANIFESTAZIOA.

Tabernariak deituta, Presoan aldeko Plataformarekin bat, Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean manifestazioa. Plazatik 20:00etan aterako da.

■ DANTZA.

Azpeitia Dantzan egitarauaren barne, herriko Itsasi dantza taldeak dantzen emanaldia eskainiko du Enparantza Nagusian. 22:30tan.

22 (larunbata)

■ SCALEXTRIC.

IV. Scalextric ekintza. Frontoi Txikian. 11:00etan.

■ LIBURURUAREN AURKEZPENA.

Azpeitiko Festak libururen aurkezpena. Udal Areto Nagusian. 12:30tan.

■ RALLYE.

VIII. Azpeitiko rallya. Epaitegiko plazan. 16:00etan.

musika kalitza

- Musika: Imuntzo ta Beloki
- Hitzak: Sebastian Lizaso
- KMK'00 kantua.
- Doan.



OHIKO KOKTELA KMK ERARA

Aurtengoan ere urte sasoi honetan ohikoa dugun doinu errejeta prestatuko dugu. Aski ezagunak ditugun osagai musikalak nahastu eta azken boladan hutsegiten ez duen koktela prest dago: Osagaiak:

-Euskal kutsuko txalaparta pixkat eta trikiti txorrotada eder bat.

-Euskadi tropikalean hain geureganatua dugun reggae eta ska erritmoen baso erdi bat.

-Argi eta garbi ulertzen diren ahots atsegin pare bat.

-Ikastolaren nortasuna eman bez bertako umeen ahots zipriztinak.

Guzti hau grabaketa estudioan kalitatezko soinuaz ongi eta modu dantzaragarrian nahasi eta prest dago Euskal Herriko edozein taberna, irratia, txosna edo etxetan zerbitzatzeko. ON EGIN.

Aitor Bengoetxea

■ JAIALDIA.

Azpeitiko festak jaialdia, Itsasi dantza taldea, Udal Musika Banda, Julian Barrenetxea abesbatza, Izarraitz Txistulari taldea, danborrada taldeak, soka mutilak, dultzainak, trikitalariak eta bertsolariak. Izarraitz pilotalekuan. 22:30etan.

23 (igandea)

■ KILOMETROAK.

KMK'00 antolatuta Diego Garcia-Andoni Egaña korrika apustua Zezenplazan. 12:00etan.

■ DANTZARIAK.

Dantzari Txiki eguna. Egun guztian zehar, dantza taldeak kaleetan eta Plazan.

■ NOBILLADA.

Nobillada eta rejoneoa; Igor Etxaniz 'Kinttela'. Zezen plazan. 18:00etan.

■ KALEJIRA.

Los Zumai txarangarekin kalejira zezen plazatik irtenda. 19:30etan.

24 (astelehena)

■ DANTZA.

Azpeitia Dantzan egitarauaren barne Vietnam eta Kubaneko kosako dantza taldeen emanaldia izango da ikusgai Enparantza Nagusian. 22:30tan.

■ PILOTA.

Erremonteko txapelketa Izarraitz Pilotalekuan. 22:30tan.

25 (asteartea)

■ GOIZ ERESIA.

Herriko musika banda eta Izarraitz Txistulari taldearen goiz eresia. 9:00tan.

■ PILOTA.

Ilunpe Elkartearen XVI. pilota txapelketa, Cesar Valverde saria, Frontoi txikian. 10:30tan.

■ MEZA.


Parrokian. 11:00etan.

■ SOKATIRA.

Euskadiko lur gaineko sokatira txapelketa. 560 kilotan Nuarbe, Getxo eta Goierri taldeak. 600 kilotan Nuarbe A, Nuarbe B, Goierri eta Getxoko taldeak. Loiola Hotelaren ondoan. 11:00etan.

■ GANADU TXAPELKETA.

Euskadi mailako ganadu era-



■ BASERRITAR EGUNA

Eguna: Uztailak 25, Santiyo eguna
Ordua: Goizeko 09:00etatik aurrera
Tokiak: Plaza, azoka plaza eta Zelai Luze

BASERRITAR EGUNA SANTIYOTAN

Santiyo egunean baserritarren eguna ospatuko da herrian. Azoka plazan, enparantza nagusian eta Zelai Luzen haibat lehiaketa eta txapelketa izango direlarik.

Goizean Euskadi mailako Akitania blonda arrazako ganadu erakusketa eta txapelketa izango dira berdura plaza atzean. Pieza ederrak ikusteko parada izango da,

ondo hazi eta jandako hainbat abere izango baita erakusgai. Gazta lehiaketa ere izango da; Idiazabal jatorri deiturako gaztak lehian arituko dira. Dastatuko dituen epaimahaiaren gain izango da erabakia.

Sagardo lehiaketa eguerdian hasiko da enparantza nagusian, baita bezperan erre-

tzen jarritako txekorraren dastaketa ere. Urtero bezala, nahikoa komeria izango da sagardo tragoxka eta mokadu bat jateko. Trikiti doinuak eta bertsolarien saioak girotuko dute plaza sagardo lehiaketak dihar-

duen artean. Birtartean, kaleetan Hasparneko joaldunak eta

Itsasiko tuntuurroak ibiliko dira, kalejiran.

Udaletxe azpiko joaldunen erakusketaren azken eguna izango da santiyo eguneko.

kusketa eta txapelketa.
11:00etan.

- **GAZTA LEHIAKETA.**
Idiazabal jatorri deituraren artazi gazta lehiaketa. 11:00etan.
- **SAGARDO LEHIAKETA.**
Sagardo lehiaketa, txekor errearen dastaketa, bertsolariak, trikitalariak. Enparantza nagusian. 12:00etan.
- **TUNTTURROAK.**
Itsasiko tuntuurroak herriko kaleetan zehar. 12:00etan.
- **KARTINGAK.**
Karting jaialdia, Euskadi mailan

puntuagarria. Damasoneko zirkuitoan. 16:00etan.

- **KALEJIRA.**
Kalejira zezen plazara Udal Musika bandarekin. 17:30tan.
- **DESENKAJONAMENDUA.**
Zezenen desenkajonamendua. Zezen plazan. 18:00etan.
- **KALEJIRA.**
Kalejira txaranga zezen plaza-
tik irtenda. 19:30tan.
- **KONTZERTUA.**
Kepa Junkeraren kontzertua. Enparantza Nagusian. 23:00etan.

UZTARRIAREN oharra taldeei:
bidali zeun ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerra.

uZtaila

Mailu Seguro la

Dantzaie.
Itsasi dantza
taldekue.

Barriyuen dantzan hasi eta 8 urtekin hasi zan Itsasin dantzan ikisten, Gipuzkoko dantzak ditu gustukuenak, hankapuntten eiten die-lako.



NEREA URANGA

“TRIKITIYE EITET GUSTOANA, MOIMIENTUE ESKATZEU TA GEHIENA NEKATZEANA DA”

► Dantzan ikustetik ezautzen zaitut? Itsasiko aktuaziotan ikusite alegiye.

Bai, urte asko damazkit dantzan. Oin dala 18 urte hasi nintzen Itsasin, 8 urte nauzkela. Lenuo barriyoko bat, Sahatsan zebilen eta harekin ibiltzen giñen dantzan ikisten. 8 urtearte ezintzan Itsasin hasi, eta bete nitunien hasi nintzen.

► 26 urtekin, Itsasiko dantzai zaharrenetakue zea.

Neskatan hiru gaude nere kintakoe, baina ni naiz zaharrena; mutilen artien bat dao zaharroue, Xabier, oin erakusten diguna.

► Oraindik gazte eta zaharrena dantzan.

Jendie lagatzen jutea. Batzuk lagatzen hasi zien, gero grupokuek uzten badebe... Eta len ibiltzen zien pila bat ezkonduete daude.

► Aizpere dantzan ibiltzea, ezta?

Ni baino hiru urte beranduo hasi zan, 8 urtekin harere.

► Zer daukebe euskal dantzak?

Hemengo dantzak die. Hemengo kulturako parte die, eta interesantie da jakitie. Kanpokuek ikusite geo polittek die guriek, hemen Euskal-herrikuek oso difere-
rentiek die.

► Ez al dizu beñe tire beste dantza batzuk ikustie?

Bai, beti auki det gogue, baño den-

boraik ez dauket. Tangué eta sevillanak ikustie gustako litzateke.

► Zeatik, tangué ta sevillanak?

Ikusita tire itei be, eztaikit zeba.

► Preparaziyo fisikoik eskatze al du dantziek?

Oso goorra ezta. Kuestiyue da entsaiota jutie, bertan fondo bat hartzie, gero flexibilitatie ber da...

► Honezkeo dantza pille bat jakingoituzu, ezta?

Bai, asko. Eta oin berriyek ikisten ai gea. Berriyek ikustie aliziente bat da, ilusiyue iteizu.

► Zein dantza itezu gustoana.

Sueltue, arin arina ta trikiti-

ye.

► Ta hori?

Mobimiento gehiena exijitzen duna da eta gehiena nekatzen dan dantzie.

► Eta dantzako janzkeran artien?

Erronkarikue. Elegante-elegantie da, gona morauekin, txaleko beltzakin...

► Oin hasiko zaizue aktuaziyuen tenporadie, ezta?

Bai, azpeitiyen uztailien, Lizarran'e bai eta abuztuen Ingalterra guez.

► Dantzan eskusan leku pila bat ezautuko zenitun...

Bai, iye Europa guztiye ezautzet. ■

“Denboraik ez tauketelako, baño

tangué eta sevillanak ikustie gustauko litzateke.

Tire eiteibe”

UZTARRIAREN hiru ohar:

1. Bazkide izatea nahi baduzu, baina zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu UZTARRIAREN zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditazun: 2101 0029 28 0122349624 (Kutxa). Izen-abizenak eta helbidea eman.
2. Azpeititik kanpo bizi den senide edo lagun bat baduzu eta hark UZTARRIA jaso nahiko balu, bidali haren izen-abizenak helbide honetara: 227 posta kutxa Azpeitia, edo Julian Elorza Hiribidea 4-2 Ezkerra. Eta bestela utzi mezua 15 03 58 telefono zenbakira deituta.
3. Eman beheko datuen txartelen bat UZTARRIAN oraindik harpidedun edo bazkide egin ez den herriko senide edo lagun bati. Edozein txokotan behar du UZTARRIAK!



uztarrria

Azpeititik kanpo bizi den senide

**egin zaituz harpidedun
...doan!**

Bidali hona datuak: 227 posta kutxa Azpeitia, edo Julian Elorza Hiribidea 4-2 ezkerreko Azpeitia helbidera.

Izen-abizenak (etxetik batena):

Helbidea:

**...edo, lagundu nahi baduzu,
bazkide izan zaituzke**

urtean 3.000 pezeta soilik!

Bidali hona datuak: 227 posta kutxa Azpeitia, edo Julian Elorza Hiribidea 4-2 ezkerreko Azpeitia helbidera.

Izena eta bi abizen:

Helbidea:

NAN (DNI): Sinadura:

Kontu korronteko zenbakia (20 digito):

A&M

Estetika & Fisioterapia

Maider Lasa. Estetika

Depilazioa Lasserra,
Elektrikoa, Erabili eta
botatzeko argizaria

Aurpegiko Tratamenduak
Gorputz Tratamenduak
Manikura
Pedikura
Makilajea
Zutikako Solariuma

Mikropigmentazioa
Tatuajea

Produktu
Salmenta



Ane Lasa. Fisioterapia

Errehabilitazioa
Fisioterapia Oroko
Kirol Lesioak
Masajea

Osasun
eta
Istripu Aseguruak

Etixerako Zerbitzua



Salbe auzunea 38 Tel: 943 81 23 70 AZPEITIA

abartuan zabal

Non dago diferentzia?

- ✓ ikastola izatean
- ✓ gurasoak jabe izatean
- ✓ ikasleak bezero bezala tratatzea

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

jaio berritik hasita,
goizeko 7,30etatik arratseko 7,30etara
uztailean zabalik

KIROL ELKARTEA

pilota, sokatira, krossa,
futbola (errealari afiliatua), saski baloia,



kmk/00

hau da!

IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA